

Ikaskuntza kooperatiboari aurreneko hurbilketa

 3 saio

 6 ordu
**KONPROMISOAK** COMPROMISOS

- Koordinatzaile bat izendatu.
- Zuzendaritzaren inplikazioa.
- Irakasle parte-hartzaile guztiak aurrez helburu eta edukien jakitun egon.
- Saioak ahalik eta jarraienak izatea.

**HELBURUAK** OBJETIVOS

- Ikaskuntza kooperatiboaren oinarrizko klabeak ezagutzea.
- IK gelan gauzatu ahal izateko dinamika, egitura, teknika eta gainerako baliabideen berri izatea.
- Bizipenaren bitartez ikastea.
- Ikastetxean gaiarekiko jakin-mina sortaraztea eta hausnarketa bidea irekitzea.

**EDUKIAK** CONTENIDOS

- Ikaskuntza Kooperatiboaren marko teorikoa: oinarriak.
- Talde-kohesioa hobetzeko dinamikak. Kohesioaren dimentsioak.
- Taldekatze motak eta gelaren antolaketa.
- Talde lana ahalbideratzeko egiturak eta teknikak.
- Talde lana eduki gisa: taldearen koadernoaren osagaiak.
- Egiten ikasi.

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK** CRITERIOS DE EVALUACIÓN

- Irakasleek kohesioa landu behar dela, lan taldea egituratu behar dela eta talde lana eduki gisa landu behar dela dakite.
- Irakasleek kohesioa lantzeko dinamikak ezagutu eta gutxienez horietako bat praktikatu dute.
- Irakasleek talde lana ahalbideratzeko egiturak eta teknikak ezagutu eta gutxienez horietako bat praktikatu dute.
- Irakasleek talde lana eduki gisa landu beharraz jabetu dira.
- Irakasleek parte hartze aktiboa izan dute.
- Irakasleengan gaiarekiko jakin-mina asetu dugu eta hausnarketarako bidea zabaldu dugu.